

Arautegia

1. Aiako Harria mendi martxak:

GIRIZIA Mendizale Elkartek eta ARRITXULO aterpetxeak elkarlanean antolatutako bi zeharkaldi hauek mendiko ibilbide herrikoia dira, eta kirol eta kultur arloko helburuak dituzte: mendizaletasuna bultzatzea eta Oiartzun inguruko leku eta ibilbideak erakustea, betiere natura erabat errespetatuaz.

2. Erantzunkizuna

Parte-hartzaileek garbi izan behar dute zeharkaldi hau mendi ibilbide bat dela, eta kirol-jarduera horren arriskuak dituela. Antolatzaileek ez dute bere gain hartzen partehartzaileei ibilbidean edo ibilbidearen ondorioz gertatutako istripuen, galdutako objektuen edo izandako min eta lesioen ardura. Parte-hartzaileek uko egiten diote elkarlearen kontra erreklamazioak jartzeari edo indemnizazioak eskatzeari.

Mendi jarduera hau edo gainerakoak egiteko federatuta egotea gomendatzen da. Bestela ekintza honetarako aseguruia ordaindu beharko da (2€).

Antolatzaileek jarduera hau bertan behera uzteko edo atzeratzeko eskubidea dute, eguraldia edo bestelako arrazoiak tarteko.

3. Ibilbidea

Aiako Harria mendi martxak 2026ko urriaren 24an egingo dira, irteera eta helmuga Oiartzunen izango direlarik.

Ibilbidea luzeak 40 km ditu eta 1.800 metroko desnibel gehitua, Oiartzungo plazan hasi eta bertan bukatuko da.

Luzera laburreko ibilbideak berriz, 18 km-ko luzera du eta 900 m inguruko desnibel gehitua du, Arritxulo aterpetxean hasiko da eta bertan amaitu.

4. Informazioa eta izen-ematea: (Abuztuaren 24tik aurrera)

Informazioa:

-Email: girizimendi@gmail.com (Gaian "Mendi martxa" jarri eta utzi zure telefonoa harremanetan jarri ahal izateko)

-Telefonoa (asteartetan 19:30tatik 21:00tara): 943 49 11 33

Izen-ematea:

-Interneteko helbidea: <http://www.zirkuitua.com>

-Federatuak: 15€ / Kamiseta nahi izanez gero: +12 €

-Ez federatuak: 17 € / Kamiseta nahi izanez gero: +12 €

OHARRA: Datu hauen jabeari bere datu pertsonalak Euskal Mendizale Federazioan -dagokion fitxategian- txertatuko direla jakinarazten da, eta Euskal Mendizale Federazioak parte hartzen duen kirol proben berri emateko ekintzetan erabili ahal izango direla; Aiako Harria mendi martxak ibilaldiko parte-hartzaileen zerrenda ere bertako web orrialdean azalduko direlarik. Baimen hori baliogabetu nahi izanez gero, nahikoa da honako helbide honetara jotzea, igorpena eta harrera egiaztatzeak aukera ematen duen edozein bide erabiliz: Euskal Mendizale Federazioa. Anoeta pasealekua 4, 20014 Donostia.

5. Zerbitzuak

Antolatzaileek bezperatik bi gune prestatuko dituzte lo egiteko, Elizalde herri eskolako aparkalekua eta Arritxulo aterpetxea.

Egunean bertan konsigna zerbitzua izango da Arritxulo aterpetxean eta Elorsoro kiroldegian poltsa bertan utzi nahi duenarentzat, eta mendi martxen amaieran bertan duxatzeko aukera bietan.

6. Irteera

Ibilbide motza Arritxulon goizeko 8:00tan hasiko da. Ibilbide luzea Oiartzungo plazan goizeko 7:00tan hasiko da.

Irteeran QR-a duen txartel pertsonalizatua emango zaio parte-hartzaile bakoitzari, izen-ematearen hurrenkeraren arabera zenbakiarekin.

7. Kontrolak

Ibilbidean zehar hainbat kontrol egongo dira, non parte-hartzaileek martxa-txartela erakutsi beharko duten QR-a irakurtzeko.

Ibilbide motza: Eskas eta Arritxulo

Ibilbide luzea: Oiartzungo plaza, Eskas, Arritxulo eta Gorrintzulo

8. Balizak

Ibilbideak markatuak egongo dira. Antolaketa kideek azken parte-hartzailearen ondoren egingo dute ibilbidea balizak jasoz eta ibilbideari amaiera emanez.

9. Hornidura

Hiru hornidura gune egongo dira ibilbidean zehar edari eta elikagaiekin. Norberak ikusiko du bere gustuko gauzak ekarri edo ez.

10. Erretiratzea

Ibilbidean zehar erretiratzen diren parte-hartzaileek antolaketa kideei eman behar die txartela, edo eta 943 58 00 10 telefono zenbakian jakinarazi. Erretiratze punturik egokienak kontrol guneak dira.

11. Bukaera

Ibilbide motza gehienez 6 ordukoa izango da eta luzea aldiz 10 ordukoa.

Bi ibilbideen amaieran izango da zer jan eta edana ospatzeko.

Aiako Harria

Mendi Martxa



2026ko
Urriak 24



Girizia
mendizale elkartea

Arrixulo
Oiartzungo Mendi Aterpea



OIARTZUNGO
UDALA



